



UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA OSATZEN DUTEN UDALERRIEN EREMUAN HONDAKINAK GAIKA JASOTZEKO ZERBITZUEN BIDEZ JASOTAKO PAPERA ETA KARTOIA SALTZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ETA ESKAKIZUN TEKNIKOEN ORRIAK

LEHENENGO ATALA - KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratu honen objektua da Udal Elkarteko udalerrietan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaián) jarrita dauden edukiontzi urdinetan jasotako, atez ateko zerbitzuaren bidez jasotako eta Urola Kostako Udal Elkartearen jabetzakoak diren Garbiguneetan jasotako papera eta kartoia saltzea, orriotako baldintzen arabera.

Jasotako papera eta kartoia Udal Elkartearen instalazioetan pisatuko da eta, ondoren, kontratistak proposatzen duen eta Udal Elkarteak ontzat jotzen duen biltegi edo berreskuratzeko plantara garraiatuko da. Kontratistaren instalazio hori nahitaez Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta egongo da.

Instalazio horiek behar bezala prestatuta egongo dira, eraman eta husten den papera eta kartoia manipulatu eta egokitzeko behar diren makina, tresna eta giza baliabide guztiekin. Instalazio horiek jarduera hori burutzeko beharrezko diren baimen guztiak izango dituzte.

Eselependunak bermatuko du Udal Elkarteak kontratatuta dituen hondakinak gaika biltzeko zerbitzuek materiala urteko edozein egunetan hustu ahal izatea (jaiegunetan ere bai), egunez zein gauez, eta, beharrezkoa baldin bada instalazio horietako giltza eskuratuko diete zerbitzu horiei.

Lehiatzaileek memoria tekniko bat aurkeztu behar dute. Memoria horrek honakoak adierazi behar ditu xehetasunez: papera eta kartoia entregatzeko biltegi edo berreskuratzeko planta edo instalazioaren ezaugarriak (kokapena, tamaina, sarrera, ekipamendua...), instalazio horietako giza baliabideak eta makina eta materialak. Memoria hori erabiliko da baldintzen orriotan zehaztutako kaudimen teknikoa egiaztatzeko.

Enkante honetara aurkezte hutsarekin, lehiatzaileek konpromisoa hartzen dute proposatzen duten biltegi edo berreskuratzeko planta kontratua indarrean dagoen epe osoan (luzapenak barne, balego) martxan egoteko.

2.- KONTRATUA BETETZEKO EPEA

Kontratuak bi urteko iraupena izango du, gauzatzen denetik kontaktzen hasita. Kontratuaren iraupena luzatu egin ahal izango da, bi aldeak bat etorritz gero, baina guztira, luzapen eta guzti ezingo du lau (4) urte baino gehiago iraun.

Kontratu urtebeteka luzatuko da eta berariaz luzatu beharko da hiru (3) hilabeteko aurrerapenarekin, kontratua amaitzeko epetik atzera kontaktuta. Kontratu ez da besterik gabe, berariazko adierazpenik gabe, luzatuko.



3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren jabeak Udal Elkarteari ordaindu behar dion kopurua honako eragiketa honen bidez finkatuko da:

$$EP = MP - MK$$

Hala nola,

PA: Esleipendunak Udal Elkarteari ordaindu behar dion prezioa.

MP: Kalitate horren merkatuko prezioa.

MK: Kontratuaren jabearen manipulazioaren kostua.

Manipulazio kostuaren gehieneko kostua honakoa da: 20 euro / toneladako, BEZa sartu gabe.

Merkatu prezioari gagozkiola, ASPAPEL (Asociación Española de Fabricantes de Pasta, Papel y Cartón) elkarteak hileroko finkatzen duen prezioa hartuko da kontuan. Honako kalitate prezioak hartuko dira kontuan: edukiontzi urdinetan jasotako papera eta kartoiarentzat "1.01. Saillkatu gabeko nahasketa", eta, atez ate eta Garbiguneetan jasotako kartoiarentzat "1.04. Supermerkatuko kartoiak".

Esleipendunaren manipulazio kostua kalitate horretako merkatuko prezioa baino handiagoa baldin bada, esleipendunak 20 euro/toneladako gutxieneko prezioa ordainduko dio 1.01 eta 1.04. kalitateengatik (BEZa sartu gabe).

Jarraian, erreferentzia gisa, 2010ean zehar jasotako paper eta kartoi kopurua agertzen da. Dena dela, Udal Elkarteak ez du bermatzen etorkizunean kopurua hori izango denik:

Jatorria	Kalitatea	Tona urteko
Edukiontzi urdinetan	"1.01"	2.075
Atez ate eta Garbiguneetan	"1.04"	56

4.- ORDAINTZEKO MODUA

Esleipendunak ordainketa hileroko egingo du.

Ordainketa egingo da gehienez ere 15 eguneko epearen barruan, Urola Kostako Udal Elkarteak egindako faktura jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

ASPAPLEk fakturari dagokion hilabeteko prezioa argitaratu gabe izango balu, argitaratutako azken erreferentzia-prezioaren arabera egingo litzateke. Prezio hori aplikatzen jarraituko du berria argitara eman arte. Hori horrela izanik, bi gauza hauek gerta daitezke:



- (1) Aldizkariko hilabeteko prezioarekin batera argitaratu gabe zeuden aurreko hilabeteetako prezioak argitaratzea. Kasu horretan aurreko fakturretako aldea hurrengo fakturretan berdinduko da.
- (2) Dena delako hilabeteetako prezioak ez argitaratzea. Kasu horretan informaziorik gabeko epeari aplikatuko zaio aurreko hilabeteko eta hurrengo hilabeteko prezioen batez besteko aritmetikoa. Kasu horretan ere aurreko fakturretako aldea hurrengo fakturretan berdinduko da.

5.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioa berrikusiko da urtero, Estatistikaren Euskal Institutuak argitara ematen duen EAEko Kontsumo Prezioaren Indizea (KPIa) esleipendunak eskainitako kiloko manipulazio kostuari aplikatuta.

6.- BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du Urola Kostako Udal Elkartearen alde, hain zuzen ere esleitzeko kopuruaren %5. Esleitzeko prezioztat honakoa hartuko da: esleipendunak ordaindu behar duen prezioa bider material mota bakoitzetik jasotako kopurua (1.01: edukiontzi urdinetan jasotako papera eta kartoia; eta 1.04: atez ate eta Garbiguneetan jasotako kartoia), 2010ko bilketa datuak kontuan hartuta.

Behin betiko bermea jartzeko epea 10 lanegunekoa izango da, bermea jartzeko eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bermea jarri ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikulua ezarritako bideak erabiliz eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamenduaren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzen argitara. Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, ez balitz baldintza hori beteko, Administrazioak amaitutzat joko du kontratua.

Bermea eskudirutan eratzen bada, 2101.0076.56.0010097475 zenbakia duen Kutzako kontu korrontean sartuko da bermearen zenbatekoa, eta abonu-agiriaren kopia bat aurkeztuko da Udal Elkarteke Diruzaintzan, bermea itzultzeko kontu korrontearen zenbakiarekin batera.

Bermea itzuliko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoari jarraiki, berme-epea amaitu eta esleipendunak legezko betebeharrak bete ondoren.

7.- KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua betetzeak izan ditzakeen arriskuak kontratistari dagozkie.

Kontratuaren objektua burutzen ari dela, kontratuaren jabeak orriotako baldintzak bete behar ditu, betiere Udal Elkartearen zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Udal Elkarteak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

8.- KONTRATUAREN JABEAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratua betetzeak izan ditzakeen arriskuak kontratistari dagozkie.



Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Kontratistak Urola Kostako Udal Elkarteari aurkeztu behar dizkio III. eranskinean zehazten diren dokumentuak, eranskinean bertan adierazitako epeetan.

Urola Kostako Udal Elkarteak eskubidea izango du egoki iritzitako lan arriskuen prebentzioaren arloko dokumentuak eskatzeko, kontratua indarrean dagoen epearen barruan.

9.- KONTRATU-JABEAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEEN AURREAN

Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 97. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Halaber, kontratuaren jabeak Udal Elkartearen edukiontzi edo instalazioei egiten dizkien kalteei erantzungo die.

10.- KONTRATUAREN JABEAREN BETEBEHARRAK

Kontratuaren jabeak kontratua burutuko du hitzartutako maiztasunarekin, eta behar bezala burutzen duela zainduko du.

Kontratuaren jabeak jarri behar ditu lana behar bezala egiteko behar diren ekipamenduak edo bitarteko osagarriak, kontratuan adostutako epeetan. Gainera, bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatuko ditu.

Kontratuaren jabea ECOEMBALAJES ESPAÑA, SAK onartuta edo erakunde horri atxikita egongo da, Euskadiko Autonomia Erkidegoak eta Ecoembalajes España SAK sustatutako Sistema Integratuak sinatutako hitzarmen markoaren V. eranskinak ezarritakoaren arabera (2009ko martxoaren 17an sinatutako hitzarmen markoa). Hitzarmen horretan ezarritakoa ez betetzeak baldintzen orrion arabera sinatzen den kontratua amaitzea ekar dezake.

Esleipendunak kontratatutako zerbitzuaren inguruan ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekoak dira, eta datu horien izaera eta sekretua zaindu behar du. Kontratua betetzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du.

Kontratuaren jabeak urtero aurkeztuko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ordainduta dituela egiaztatzeko ziurtagiriak, bai eta erantzukizun zibileko polizaren azken ordainagiria ere.

11.- LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA



Esleipendunak ezin dizkio beste pertsona edo erakunde bati laga edo eskualdatu kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak, aurrez eta berariaz Udal Elkartearen baimena izan ezean.

Horrez gain, esleipendunak Udal Elkartearen berariazko baimena beharko du kontratuaren zati bat beste batekin kontratatzeko.

12.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Urola Kostako Udal Elkarteak kontratua alda dezake, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak xedatzen dituen baldintza eta kasuetan.

13.- KONTRATUA AMAITZEA

Administrazio-kontratua hura amaitu edo suntsitu egin delako iraugiko da.

Kontratua amaitutzat joko da kontratua bera edo orriotako baldintzak ez betetzeagatik edo Sektore Publikoko Kontratuen Legean adierazitako arrazoiengatik.

14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Eta, orokorrean, honako hauek egin ahal izango ditu kontratazio organoak: kontratua interpretatu, kontratua betetzen sor daitezkeen zalantzak argitu, interes publikoa dela eta kontratua aldatu, kontratua amaitutzat jo eta horren ondorioak zehaztu; hori guztia egin ahal izango du, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.

Kontratua interpretatzeko, aldatzeko, amaitutzat jotzeko edo horren ondorioak zehazteko Kontratazio Organoek hartzen dituzten akordioak berehala betearaziko dira.

BIGARREN ATALA - KONTRATATZEKO PROZEDURA

15.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA IZAPIDEA.

Kontratu hau esleituko da prozedura irekiaren bidez.

ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleituko zaio ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari. Kontratua esleitzeko kontuan hartuko den irizpide bakarra da kontratistaren manipulazio kostua. Irizpide hori prezio objektibo bat da, balioesteko iritzi-baloraziorik behar ez duena eta, beraz, ekonomikoki onuragarriena dela iritziko zaio baldintzen orri hauen II. eranskinaren argitara preziorik baxuena eskaintzen duenari.



17.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute administrazioarekin kontratatzeke legeak ezarritako baldintza orokorrak eta jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten enpresek, izan pertsona fisiko nahiz juridiko.

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun juridikoa duten eta ekonomia, finantza, teknika eta lanbide kaudimena egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoek.

Inola ere ezingo dute Udal Elkartearekin kontraturik egin Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak.

18.- PROPOSAMENAK

Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta Udal Elkarteak behar diren bitartekoak erabiliko ditu hori bermatzeko, lizitazio publikoaren unea iritsi arte. Eskaintza aurkezteak adierazten du lehiatzaileak baldintzarik gabe eta inolako salbuespenik gabe onartzen dituela baldintzen orriok eta kontratuaren beste agiri guztiak. Halaber, adierazten du aurkezten dituen datu guztiak egiazkoak eta zehatzak direla eta kontratazio honetarako ezarritako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Lehiatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake. Gainera, ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte gisa proposamenik aurkeztu banaka proposamena aurkeztu badu; halaber, lizitatzailerik batek ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan aurkeztu. Arau horiek haustek lizitatzailerik horrek sinatutako proposamen guztiak baztertuta gelditzea ekarriko du.

Proposamenak Urola Kostako Udal Elkartearen egoitzan aurkeztu behar dira (Urdaneta bidea 6, Zarautz), 8:00etatik 14:00etara, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusten duen beste edozein bide erabiliz. Proposamenak aurkezteko epea egutegiko hamabost (15) egunekoa da, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Egun hori larunbata balitz, epea hurrengo astelehenean amaituko litzateke.

Lizitatzailerik bere proposamena posta bidez igortzen badu, igorpenaren data justifikatu beharko du postetxean, eta, egun berean, eskaintza igorri duela jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari telefax edo telegrama bitartez. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eta dokumentazioa adierazitako epetik kanpo jasotzen badu organo kontratatzaileak, ez da dokumentazioa onartuko. Nolanahi ere den, adierazitako datatik egutegiko hamar (10) egun igaro badira, eta proposamena jaso ez bada, ez da inola ere onartuko.

Proposamena aurkeztu ondoren ezingo da inola ere erretiratu.

Aipatu diren gutun-azal horiek Urola Kostako Udal Elkartearen Sarrera Erregistro Orokorrean (Urdaneta bidea 6, Zarautz) aurkeztu behar dira, 15 egun naturaleko epean, lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.



Gutun-azalak itxita eta sinatuta aurkeztu behar dira. Azalean eskaintza egiten duen enpresa edo lizitatzaillearen izena eta honako esaldia idatziko dira: **“Urola Kostako Udal Elkartearen eremuan hondakinak gaika biltzeko zerbitzuen bidez jasotako papera eta kartoia saltzeko lehiaketan parte hartzeko eskaintza 2012/4/EN/1”**.

Horrez gain, gutun-azal bakoitzak bere edukia zein den adieraziko du, izenburu hauekin:

1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA
- B KARTAZALA: DIRU-ESKAINZA

Gutun-azaletan honako dokumentu hauek sartu behar dira:

"A gutun-azala: kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena"

- 1) Enpresariaren gaitasuna egiaztatzeko agiriak, eta, ordezkararenak, ordezkarari bidez jardungo balu.

Gaitasuna honela egiaztatuko behar da:

- Enpresaria norbanakoa baldin bada, NANA edo baliokidea.
- Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, eratzeko edo aldatzeko (horrela badagokio) eskritura, merkataritza erregistroan inskribatutakoa, dagokion merkataritza araubideak horrela eskatzen badu. Inskribatuta egotea beharrezkoa ez baldin bada, eratzeko (edo aldatzeko) eskritura edo agiria, estatutuak edo eratzeko eginbidea. Horietan enpresaren jarduera arautzen duten arauak adieraziko dira, eta, horrela badagokio, erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.
- Besteren izenean proposamena sinatzen duten pertsonen kopiekin aurkeztuko dute, askietsitako ahalordearekin batera. Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, ahalordea merkataritza erregistroan inskribatuta egongo da, bere esparruko araubideak horrela eskatzen badu.

- 2) Ekonomia, finantza, teknika eta lanbide kaudimena egiaztatzeko agiriak:

- a) Ekonomia eta finantza kaudimena egiaztatuko da enpresariarekin lan egiten duen finantza erakunde batek egindako ziurtagiriarekin, eta adieraziko du data horretan enpresari horrek ekonomia kaudimen nahikoa duela Udal Elkartearekin baldintzen orrion objektu den kontratua burutzeko, administrazio baldintza zehatzen orrietan ezarritako baldintzen arabera. Bestela, enpresariak lanbide arriskuen kalte-ordain aseguruak baduela adierazten duen egiaztagiria aurkez dezake.

- b) Teknika eta lanbide kaudimena honela egiaztatuko du: Aurreko hiru urteetan egindako lan edo zerbitzuak, kontratuaren objektu diren lanekin lotura zuzena dutenak. Adierazi behar da kopurua, datak eta onuradun publikoak eta pribatuak.

- Lehiatzaileak egiaztatu behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoan papera eta kartoia biltegiatuta edo eta berreskuratzeko instalazioak dituela, erosi duen papera eta kartoia jaso eta egokitze beharrezko ekipamendu eta baimenak dituenak.



- Hori dela eta, lehiatzaileek memoria teknikoak aurkeztu behar dute, eskura dituen instalazioak (kokapena, tamaina, sarrera-irteerak, makinak, ekipamenduak...) eta giza baliabideak xehetasunez deskribatzeko. Memoria hori plano, argazki eta antzekoekin osatuta egongo da. Horrez gain, jarduera baimenaren eta irekitzeko baimenaren kopiak aurkeztu behar dituzte lehiatzaileek.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren onarpen eta baimena, hondakin ez arriskutsuen kudeatzaile gisa, paper eta kartoi hondakinak kudeatzeko.

Baldintza horiek kontratu-betebehar izaera dute eta, horrenbestez, SPKLaren 53.2 artikulua aurreikusitakoaren arabera, ez betetzeak kontratua amaitutzat ematea ekar dezake, 206.g) artikulua ondo ondo.

- 3) Erantzukizuneko berariazko adierazpena, **I. ERANSKINA**ren arabera egina, proposamena sinatzen duena nahiz ordezkatzeko duen sozietatea administrazioarekin kontratatuzko ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 20. artikulua adierazitako debeku egoeratan ez dagoela adierazten duena.
- 4) Indarrean dauden lege-xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela egiaztatuzko agiriak. Horretarako aurkeztu behar ditu Ogasun Departamentuaren egiaztagiria eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko Probintziako Zuzendaritzaren egiaztagiria:
 - Derrigorrezko gizarte segurantzako ordainketak egunean eginda daudela egiaztatuzko ziurtagiria.
 - Ogasunarekin dituen zerga betebeharrak egunean eginda daudela egiaztatuzko ziurtagiria.
 - Jarduera Ekonomikoen gainekoa Zergan alta emanda dagoela adierazten duen agiria.

Ziurtagiri horiek 6 hilabeteko balioa izango dute, egiten direnetik hasita.

- 5) Atzerriko enpresak aitortzea aurkeztu behar du, Espainiako epaitegi eta epaileen jurisdikzioa onartzen duela adierazten duena, eremua edozein dela ere, kontratutik zuzenean nahiz zeharka erator daitezkeen gorabehera guztiak ebazteko. Halaber adierazi behar du dagokion atzerriko jurisdikzioari uko egiten diola.
- 6) Gutun-azal honetan sartutako dokumentu guztien zerrenda, zenbakiz antolatuta.

Horretarako jatorrizko dokumentuak aurkeztu behar dira, edo indarrean dagoen araubidearen arabera benetakotzat jotzen diren kopiak.

* **1. OHARRA:** Euskadiko Autonomia Erkidegoko kontratisten erregistroan izena emandako lehiatzaileek erregistro horrek egindako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1 eta 3. ataletan adierazitako agirien orde.

* **2. OHARRA:** Urola Kostako Udal Elkarteak aurreko hiru hilabeteetan deitutako beste lehiaketa batean parte hartu duten lehiatzaileek hori adierazten duen aitortzea aurkez dezakete, eta, ondorioz, ez dituzte



1 eta 4. ataletan zehaztutako agiriak aurkeztu beharko. Aitorpenean adierazi behar da administrazio-agiri horiek noiz aurkeztu diren, zein sarrera zenbakirekin eta zein lehiaketara.

"B kartazala: diru-eskaintza"

Proposamen ekonomikoa eta diru-eskaintza baldintzen orrion **II. ERANSKIN**eko ereduaren arabera aurkeztu behar da. Diru-eskaintzan adierazten den kopuruan sartuta egongo dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa), aplikatzekoa balitz, nahiz beste zerga guztiak, baita kontratua indarrean dagoela ezar litezkeenak ere. Adierazitako kontzeptuak ezingo dira kontzeptu edo sail independente moduan jasanarazi.

19.- DOKUMENTUAK SAILKATU ETA GUTUN-AZALAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, ezarritako epe eta eran jasotako dokumentazioa (1. gutun-azala) kalifikatuko du Kontratazio Mahaiak, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 81. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

Kontratazio Mahaiak, aurkezturiko dokumentazioa kalifikatu eta, hala balegokio, aurkituriko akatsak zuzendu ondoren, baldintzen orriotan ezarritako aukeratze-irizpideetara egokitzen diren enpresak zehaztuko ditu eta berariaz adieraziko du zein diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta baztertzeko arrazoiak.

B gutun-azalak irekiko dira jendaurrean, Urola Kostako Udal Elkarteko aretoan, A gutun-azala ireki eta 7 eguneko epearen barruan. Irekitzeko ekitaldia Udal Elkartearen egoitzan egingo da (Urdeneta bidea 6, Zarautz). Eguna eta ordua kontratatzailearen profilean emango dira ezagutzera.

Ekitaldia hasteko, 1. gutun-azalaren aurkezturiko dokumentazioaren egiaztatzeak eman duena adieraziko da eta, dokumentazio horri buruz beharrezko adierazpenak egin ondoren, onartutako eskaintzaileen 2. gutun-azalak ireki eta eskaintza ekonomikoa irakurriko dira.

Jendaurreko ekitaldia bukatu ondoren, Kontratazio Mahaiak lehiaketa esleitzeko proposamena egingo dio Mankomunitateko organo eskudunari.

20.- ESLEIPENA

Kontratazio organoak aurkeztutako eskaintzak lortutako puntuen hurrenkerak jarriko ditu (puntu gehien lortu dituenek gutxien lortu dituenara) eta ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena egin duen lehiatzaileari eskatuko dio honako eginbide hauek burutzeko, hamar lanegunen epearen barruan, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita:

- Zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu (agiri horiek eskaintzarekin batera aurkeztu ez baditu).
- Behin betiko bermea jarri.
- Kontratazio Organoak eskatutako bestelako agiriak aurkeztu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 135.4 artikuluan aurreikusitakoaren argitara.



Baldintza horiek bete ondoren kontratua esleitu egingo zaio. Kontratua esleituko da 15 eguneko epearen barruan, eskaintzak irekitzeko ekitaldiaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Esleipena Kontratazio Organoak egingo du, arrazoitutako ebazpenaren bidez. Ebazpen hori lehiatzaileei jakinarazi egingo zaie eta Kontratazio Organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Eskaintzarik onuragarriena egin duen lehiatzaileak ez baditu gorago adierazitako baldintzak ezarritako epean betetzen, lehiatzaile horrek bere eskaintza erretiratu egin duela iritziko zaio eta eginbide horiek burutzeko eskatuko zaio hurrengo lehiatzaileari (eskaintzen sailkapenaren hurrenkera aintzat hartuta).

Kontratazio Organoak kontratua esleituko du dokumentazioa jaso eta 5 laneguneko epearen barruan.

Kontratua esleitu ondoren, honakoak egin behar ditu esleipendunak, bost (5) laneguneko epearen barruan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

- Baldintzen orrietan eskatutako aseguru-polizak badituela egiaztatu.
- GAOko iragarkiak ordaindu, gehienez ere 500 euro.

21.- KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratu hau gauzatuko da formalizatzen denean.

Esleipenduna aldi bateko enpresa-elkarte bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik aldi bateko enpresa-elkarte gisa eratu dela egiaztatu eta IFZ aurkeztu behar du.

Kontratuaren agiri administratiboa egingo da eta dokumentu hori aski izango da edozein erregistro publikotan sarbidea izateko. Dena dela, esleipendunak kontratuaren eskritura publikoa egiteko eskatu ahal izango du. Horrela izanez gero, eskritura egiteko gastuak esleipendunak ordainduko ditu.

Kontratuaren administrazio-agiria sinatuko da egutegiko hamabost eguneko epearen barruan, esleipenaren jakinarazpena aurreikusitako eran jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

22.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahai baten laguntza jasoko du. Kontratazio Mahai horrek izango du eskaintzak baloratzeko eskumena. Honela osatuko da:

- a) Lehendakaria: Urola Kostako Udal Elkartekoa.
- b) Mahaikideak: Ingurumen teknikaria
Ingurumen teknikaria
Udal Elkarteko Ingurumen Saileko arduraduna.
Udal Elkarteko behin-behineko idazkari-kontuhartzailea
- c) Idazkaria: Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna.



Kontratazio Mahaiak ahalmena izango du kontratua esleitzeko beharrezko jotzen dituen txosten teknikoak eskatzeko.

HIRUGARREN KAPITULUA - IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu hau honakoek arautuko dute:

- Administrazio-baldintza eta eskakizun teknikoek orri hauek.
- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.
- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua.
- Administrazio-zuzenbideko kontratazioen araubideak arautuko du kontratuaren prestaketa eta esleipena eta zuzenbide pribatuko araubideak, berriz, ondorioak eta amaiera.

Administrazio-baldintzen orriotan adierazitakoa kontraesanean badago espedienteko gainerako dokumentazio teknikoarekin, orriotan ezarritakoak izango du lehentasuna.

24.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratua interpretatzen, aldatzen, amaitzen edo amaitzearen ondorioak zehazten sor litezkeen gorabeherak kontratazio-organoak erabakiko ditu. Erabaki horiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta, horien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legearen arabera. Dena dela, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkezteko aukera dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.



I. ERANSKINA

ADIERAZPENA EGITEKO EREDUA

(Pertsona naturala edo fisikoa baldin bada)

Nik,.....jaun/andreak, adinez nagusi,NAN zenbakiaren jabe eta helbidea..... dudalarik, adierazten dut gaitasuna dudala administrazio publikoarekin kontratatzeko, izan ere jarduteko gaitasuna dut eta ez dut ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako debekurik.

(Tokia, data eta sinadura)

(Sozietate bat edo pertsona juridiko bat baldin bada)

Nik,.....jaun/andreak, adinez nagusi,NAN zenbakiaren jabe, eta helbidea dudalarik, sozietatearen izenean (IFZ eta helbidea), adierazten dut gaitasuna dudala administrazio publikoarekin kontratatzeko, izan ere jarduteko gaitasuna dut eta ez dut ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako debekurik.

(Tokia, data eta sinadura)



II. ERANSKINA

DIRU-ESKAINZA EGITEKO EREDUA

Nik,.....jaunak/andreak, adinez nagusi,NAN zenbakiaren jabe eta helbidea dudalarik, nire izenean (edo sozietatearen izenean, helbidea eta IFZ –persona fisikoa eta juridikoa izatearen arabera-, jarduteko gaitasun juridikoa osoa dudalarik, honakoa

ADIERAZTEN DUT

1. Kontratua arautzen duten administrazio baldintza zehatzen orriak eta bestelako agiriak ezagutzen ditut eta oso-osorik onartzen ditut.

2. Konpromisoa hartzen dut administrazio-baldintza zehatzen orrietan zehaztutako papera eta kartoia honako baldintza hauetan erosteko:

- Manipulazio-kostua:

..... euro kiloko (BEZa sartu gabe) "1.01 (A1) (jatorria) (CEPI)

.... euro kiloko (BEZa sartu gabe) "1.04 (A4) (jatorria) (CEPI)

3) Ordezkatzen dudan enpresak kontratu hori burutzeko indarrean dauden lege-xedapenek ezarritako eskakizun eta betebeharrak guztiak betetzen ditu.

4) Era berean, konpromisoa hartzen dut lan eta zerga arloko araubidea betetzeko.

(Tokia, data eta sinadura)



III. ERANSKINA

LAN ARRISKUAK PREBENITZEKO BALDINTZAK

Baldintza-orrion helburua da Urola Kostako Udal Elkartearen zentroetan edo Udal Elkartearen aginduz beste leku batean zerbitzuak kudeatzeko kontratu baten bidez diharduten kontratu jabeek lan arriskuen prebentzioaren arloan bete behar dituzten baldintzak finkatzea.

I. KOMUNIKATZEKO BETEBEHARRA.

a) Eskaintza onuragarrienari errekerimendua egiteko unean

Kontratuaren jabeak bere eskaintzan honakoak adierazi behar ditu:

1. Bere enpresan indarrean dagoen prebentzioaren antolamenduaren deskribapena, enpresaren jardueran izaera orokorrarekin arriskuak prebenitzeko ezarritako kudeaketa-sistema.
2. Koordinazio-arduraduna, laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Enpresa esleipendunak honako hauek adierazi beharko ditu bere eskaintzan:
 - i. Lan-arriskuen prebentzioaren arloan koordinatzaile gisa izendatutako pertsonaren datuak.
 - ii. Enpresaren agiria, pertsona hori izendatzen duena.
 - iii. Lan-arriskuen prebentzioaren arloko maila akademikoa edo esperientzia-urteak.

b) Kontratua burutzen ari dela

b.1) Jarduera hasi aurretik

Lan arriskuen arloan beharrezko koordinazioarekin jokatzeko, kontratistari informazioa emango zaio, zerbitzuaren eta Udal Elkarteko dagokion lan-eremu eta instalazioen arriskuei eta horiei aurre egiteko hartu beharreko prebentzio neurriei eta larrialdi egoeran bete beharreko jarraibideei buruz. Kontratatutako bere enpresako langileei eman behar die informazio hori.

Jarduerari ekin aurretik kontratuaren jabeak honakoak jakinarazi behar dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteari:

1. Kontratututako zerbitzua dela eta egindako lan arriskuen prebentziorako plangintza (arriskuen ebaluazioa, segurtasun neurriak, babesteko ekipo indibidualak, taldeko babes ekipoak, prestakuntza...). A eranskina behar bezala bete eta eskatutako dokumentuak erantsita.
2. Zerbitzua burutzeko kontratuaren jabeak izendatutako arduraduna.

Izendatutako pertsonak izango du zuzenean (kontratututako enpresak barne) bere esanetara lanean ari diren pertsonen lan arriskuei eta hartu beharreko segurtasun neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza emateko ardura; halaber, bere eginkizuna izango da lan arriskuak prebenitzeko arauak bete eta betearaztea.

Udal Elkartearen iritziz, laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan egiaztatutako prestakuntza nahikoa ez bada, Udal Elkarteak kontratu-jabeari eskatu ahal izango dio espezialitate zehatz horren gaineko prestakuntza eman diezaiela zerbitzua eman behar duten pertsonen.



Kontratistak beste enpresa batzuk edo autonomo batzuk azpikontratatzeko baditu, gertakari hori Udal Elkarteari jakinarazi behar dio. Kontratistaren eginbehar eta erantzukizuna da, 31/1995 Legearen eta 171/2004 EDaren argitara, azpikontratatuak atal honetan eta hurrengoan eskatu edo emandako informazioa eskatu edo ematea, eta ondoren informazio hori Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea.

b.2) Zerbitzuak ematen ari direla.

Lanak egiten diren artean, enpresako pertsona arduradunak honakoak jakinaraziko dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteak izendatutako pertsona arduradunari:

1. Edozein aldaketa garrantzitsu kontratuaren jardueran, langileen laneratzeak edo uzteak, zerbitzua ematean sortutako edozein gertakari. Idatzi horretan adieraziko da, baita ere, aldaketak zer behar sorrazi dituen segurtasunaren eta osasunaren arloan.
2. Kontratu-jabearen langileek istripuren bat izaten badute, idatziz jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Komunikazio idatzian adieraziko da istripua nola gertatu zen, zer lesio izan diren, zergatik gertatu den, eta zer neurri hartu diren horren inguruan.

II. KONTRATATUTAKO ENPRESAREN EGINBEHARRAK ZERBITZUA BURUTZEN ARI DELA.

1. Lanei ekin aurretik, kontratuaren jabeak izendatutako arduradunak lanak egiteko eremua bisitatuko du, horretarako Urola Kostako Udal Elkarteak izendatzen duen pertsonarekin batera. Halaber, bisita horretan zehaztuko da zerbitzu burutzen den bitartean segurtasuneko zer nolako seinaleak erabiliko diren, non jarriko diren eta segurtasunagatik eremua ixtea komeni den ala ez (inguratu, itxitura jarri, hesitu...). Horrekin batera, zerbitzuaren eremura sartu eta eremuan ibili eta aritzeko derrigorrezkoak diren banan-banako babes ekipoak zehaztuko dira.
2. Kontratuaren jabeak eta Urola Kostako Udal Elkarteak zerbitzua burutzen den unean egin ezin diren jarduerak (jarduera bateraezinak) zehaztuko dituzte, eta idatziz adieraziko dute bateraezinak diren jarduerak burutzeko debekua ezarriko dute.
3. Kontratu-jabearen langile guztiak izan beharko dute horretarako behar den prestakuntza; hala badagokio, ziurtagiri ofizialak eduki behar dituzte, behar bezala eguneratuak. Gainera, langile guztiak jaso behar dituzte Urola Kostako Udal Elkartearentzat egin behar duten lanaren inguruko prestakuntza eta jarraibideak, eta, bereziki, segurtasunarekin eta osasunarekin erlazionatutakoari dagokionez. Prestakuntza espezifikoak izan behar dute egin behar duten laneko arrisku espezifikoaren inguruan, bai eta irakatsi behar duten espezialitatearen inguruan ere.
4. Kontratu-jabearen lanak egin behar dituzten langile guztiak, bai eta azpikontratek ere, laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako alderdien plangintza egin beharko dute egin beharreko lanetan, eta Urola Kostako Udal Elkartearekin koordinatu beharko dute hori.
5. Kontratu-jabeak zerbitzua ematen ari dela erabiltzen dituen material eta ekipamendu guztiak, bai norbanakoen babeserakoek, bai babes kolektiborakoek ere, laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia bete behar dute, eta hori egiaztatzen duten ziurtagiriek Urola Kostako Udal Elkartearen eskura egon behar dute.
6. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Udal Elkartearen aginduetara lan egiten duten langile guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira, bai eta zerbitzua ematean erabiltzen dituzten ekipamenduak ere.



7. Hilero, enpresa kontratu-jabeak txosten ofizialaren kopia bat igorriko dio Urola Kostako Udal Elkarteari, zerbitzua eskaintzen ari dela gertatutako istripuei buruzkoa. Txosten horretan adieraziko dira istripuak eta istripuak sorrarazi dituzten gertakari eta gorabehera guztiak. Pertsonak edo instalazioek istripu larriren bat izaten badute, edo unean larritzat edo oso larritzat har daitekeen istripuren bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari.
8. Kontratu-jabeak ezingo ditu lanak azpikontratatu Urola Kostako Udal Elkartearen baimenik gabe. Horrela izanez gero, enpresa azpikontratatuak edo autonomoen erregimeneko langileek dokumentu honetako eskakizun berak bete beharko dituzte. Kontratu-jabea izango da eskakizunen eta ez betetzeen erantzule Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean.
9. Urola Kostako Udal Elkarteak ikuskatu ahal izango ditu, baita ere, azpikontrata edo autonomoen erregimeneko pertsona horiek.
10. Laneko agintaritzak zehapen bat ezartzen badio Urola Kostako Udal Elkarteari, kontratu-jabearen langileek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko neurriak bete ez dituztelako, Urola Kostako Udal Elkarteak dagozkion legezko eginbideak hasi ahal izango ditu kontratu-jabearen aurka.
11. Kontratu-jabeak Urola Kostako Udal Elkarteari egiaztapenak igorri behar dizkio, Gizarte Segurantzako, langileen mutualitateko eta lan-istripuen aseguruako kuotak egunean ordaintzen dituela egiaztatzeko.



A ERANSKINA:
A ERANSKINA: ENPRESAREN JARDUEREN KOORDINAZIORAKO ESKAKIZUNAK

KONTRATATUTAKO ENPRESAREN DATUAK			
Sozietatearen izena:			
IFK:		Jarduera:	
Kontratutako zerbitzua			
Hasiera data		Amaiera data	
Kontratutako zerbitzuaren solaskidea			
Izen-abizenak			
Lanpostua			
Telefonoa		e-maila	
Lan segurtasunaren eta osasunaren arloko solaskidea			
Izen-abizenak			
Lanpostua			
Telefonoa		e-maila	
Prebentzio-antolaketako modalitatea			
<input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio zerbitzua: _____			
<input type="checkbox"/> Izendatutako langilea: _____			
<input type="checkbox"/> Bertako prebentzio-zerbitzua			
<input type="checkbox"/> Prebentzio-zerbitzu mankomunatua			
<input type="checkbox"/> Enpresaburuak bere gain hartzea			
Lan istripu eta lan gaixotasunen mutua			
<input type="checkbox"/> Zure enpresa atxiki zaioan mutuaren izena: _____			
<input type="checkbox"/> Behar izanez gero, hartuko zaituen osasun-zentroa: _____			
JARDUERARI EKIN AURRETIK AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK			
1. Kontratutako/azpikontratutako zerbitzua emango duten langileen zerrenda (Langileen izenen zerrenda osatu).			
2. Kontratutako zerbitzua egingo duten azpikontrata eta autonomoen zerrenda (Bete azpikontraten edo autonomoen zerrenda)			
3. Gizarte Segurantzako ordainketak egunean ordainduta daudela adierazten duen egiaztagiria (ziurtagiri horretan sartuta agertuko dira zerbitzua eskaintzen parte hartuko duten langile guztiak) edo, bestela, hileko ordainketaren TC2 agiria eta autonomoen hileko ordainketen ordainagiriak. Hilabete 1eko balioa du; beraz, iraupen luzeagoa duten kontratuetan eguneratutako ziurtagiria bidali beharko da.			
4. Ogasuneko ordainketak egunean ordainduta daudela adierazten duen egiaztagiria (urte 1eko balioa du).			
5. Erantzukizun zibileko polizaren fotokopia eta ordainagiria (urte 1eko balioa du).			
6. Ituna kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin, edo bertako prebentzio-zerbitzuaren ziurtapena edo izendatutako langilea, indarraldia adierazita.			



7. Idatziz egiaztatzea zerbitzua emango duten langileen osasuna zaintzeko betebeharrak bete direla, egin behar duten lanak dakartzan arriskuak kontuan hartuz.
8. Egin behar diren lanetako arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueren plangintza.
9. Zerbitzuan erabiliko diren makina eta ekipoen zerrenda, fabrikazio urtea adierazita.
10. Langileek lan-arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza, egin behar duten lanerako beharrezko dena, jaso dutela egiaztatzen duen dokumentua.
11. Zerbitzuko jarduerak burutzeko behar diren babesteko ekipoa langileei eman zaizkiela adierazten duen egiaztagiria.
12. Langileek Urola Kostako Udal Elkarteak emandako informazioa jaso dutela adierazten duen egiaztagiria (lanpostuaren arriskuen ebaluazioa eta hartu beharreko neurriak, segurtasun arauak eta larrialdiko neurriak). (Bete hori egiaztatzen duen dokumentua)

OHARRAK

Azpikontratutako enpresako arduradunak kontratu-jabeari jakinarazi egin behar dizkio izendatutako langileen aldaketak, laneratzeak edo uzteak.
Kontratutako/azpikontratutako enpresak ez baditu betetzen aipatutako eskakizunak, edo ez badu edozein aldaketa, gertakari edo istripu jakinarazten, kontratua desegin egin ahal izango da.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

2012 4 EN 1

Langileen izenen zerrenda

EMPRESA	Trabajador/a (Nombre/apellidos)	DNI	Nº SS	Puesto trabajo	Inicio trabajos	Finalización trabajos



Azpikontraten edo autonomoen zerrenda

EMPRESA (Subcontrata/TA)	CIF	REA	Actividad	Responsable Seguridad y Salud	Inicio contrato	Fin contrato



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

2012 4 EN 1

Ekipo eta makinaren zerrenda

EMPRESA	EQUIPO / MAQUINA	Marca/Modelo	Año fabricación	Declaración Conformidad CE	Libro Instrucciones uso	Autorización Uso Equipo/ Carnet



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Urola Kostako Udal Elkartek emandako informazioa langileei eman zaiela egiaztatzeko agiria

_____JAUNAK/ANDREAK
(Enpresaren ordezkaria)

_____ENPRESAKO _____GISA
(Enpresan duen kargua) (Enpresaren izena)

HELBIDEA _____
(Enpresaren helbidea)

UDALERRIA _____ POSTA KODEA _____

LURRALDEA _____

Adierazten dut honako informazioa jaso dudala eta kontratuaren objektu diren lanak egingo dituzten langileei honako informazioa helarazi diedala (markatu jaso duzun informazioa):

- Kontratatutako obren lan-eremuaren arriskuei eta horiek prebenitzeko eta arriskuetatik babesteko neurriei buruzko informazioa.
- Lantokiaren segurtasun arauak.
- Larrialdietarako jarraibideak.
Zarautzen, 2012ko _____ren ____(e)an.

IZEN-ABIZENAK

KARGUA

SINADURA ETA ZIGILUA

KONTRATATUTAKO ENPRESA

EGINBIDEA:

Nik neuk egin dut, Urola Kostako Udal Elkarteko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, agerrarazteko Plegu hau Lehendakariaren 123/2012 ebazpenean onartutakoa dela.
Zarautzen, 2012ko uztailaren 9an.

DILIGENCIA:

La extiendo yo, el Secretario-Interventor accidental de la Mancomunidad de Urola Kosta, para hacer constar que el presente Pliego fue aprobado por la resolución de Presidencia 123/2011.
Zarautz, a 9 de julio de 2012.